


URAREN EUSKAL AGENTZIAREN
PROTOKOLOA,
SEXU-JAZARPENARI
ETA JAZARPEN SEXISTA EDO
SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENARI
AURREA HARTU ETA AURRE EGITEKOA



2016ko otsailaren 23a

AURKIBIDEA

1. LANTZE PROZESUA	1
2. PRINTZIPIOEN ADIERAZPENA	1
3. APLIKAZIO-EREMUA	1
4. ERREFERENTZIAKO ARAUDIA ETA DEFINIZIOAK	2
5. BERME-PROZEDURA	4
6. FALTAK ETA ZEHAPENAK	8
7. DIBULGAZIO-POLITIKA	10
8. PRESTAKUNTZA-POLITIKA	10
9. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	11
10. BIKTIMENTZAKO INFORMAZIOA	11
I. ERANSKINA: Aholkularitza Konfidentziala taldearen osaera eta erreferentziazko pertsonak bulegoetan	12
II. ERANSKINA: Salaketa ereduak	13
III. ERANSKINA: Konfidentzialtasun akordioa eta informazioa ez zabaltzekoa	15
IV. ERANSKINA: Salatuari salaketa jakinaraztea	16



1. LANTZE PROZESUA

Protokolo hau *Uraren Euskal Agentziaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren* proiektuaren esparruan kokatzen da, (3.1. neurria) sexu jazarpenaren, jazarpen sexistaren edo sexuan oinarritutako egoeraren aurrean jarduteko eta haiei aurrea hartzeko.

Protokolo honek *lantaldean 50 lagun baino gehiago ari diren enpresetan sexu jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko* Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen protokoloaren proposamena du oinarri, baina URAREN EUSKAL AGENTZIAren errealitateari egokitzen zaio.

Protokoloa batera lantzeko, hiru prestakuntza eta lan saio egin dira. Lehenengoan, Berdintasun Taldeak ez ezik, Segurtasun eta Osasun Batzordeak ere parte hartu zuen, eta saio horiek oso baliagarriak izan ziren kontzeptuak argitzeko eta protokoloa laneko arriskuei aurrea hartzeko politikaren esparruaren testuinguruan kokatzeko. Prestakuntza saioei esker, protokolo bat landu ahal izan da hausnarketa prozesu gidatu baten bidez.

2. PRINTZIOEN ADIERAZPENA

Emakumeen aurkako indarkeria, edonon gertatzen dela ere, generoagatiko bereizkeriaren modu suntsitzaileena da, eta funtsezko eskubideen urraketa goria, hala nola, duintasunerako, osotasun fisiko eta moralerako, sexu-askatasunerako eta lanerako eskubideena.

Kontuan hartuta Espainiako Konstituzioan, Europar Batasunaren araudian, Langileen Estatutuan eta Autonomiako araudian bermatuta daudela batetik, berdintasunerako, bereizkeriarik ez izateko, osotasun moralerako, intimitaterako eta lanerako eskubidea, eta bestetik, duintasunaren babesa, Berdintasun Taldeko kideok, sinatzaileok, erakundearen eta langileen ordezkartzan, irmoki adierazten dugu ez dugula genero-indarkeriarik onartuko URAREN EUSKAL AGENTZIAN -gure jardute eremuan, elegia-. Eta, halaber, konpromisoa hartzen dugu, Protokolo honen bitartez laneko sexu jazarpena eta jazarpen sexistaren problematika arautzeko. Horretarako ezarriko dugun metodoa baliagarri izango da bai prebenitzeko -prestakuntza, erantzukizun eta informazioaren bidez-, bai biktimek aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko. Zeregin horretan, behar bezalako bermeak jarriko dira, eta kontuan hartuko dira Europako arauak, Konstituziokoak, Autonomiakoak eta lan-alorrekoak, eta langileok genero-indarkeriarik gabeko giroetan lan egiteko dugun eskubideei buruzko adierazpenak.

3. APLIKAZIO-EREMUA

URAREN EUSKAL AGENTZIAk dituen aginpidepeko instalazio guztietan lan egiten dutenen lan-segurtasuna eta lan-osasuna bermatzeko betebeharra duenez, bitarteko guztien bidez, osotasun fisiko eta psikikorako arriskurik gabeko lan-giroak bermatu behar ditu. Ondorioz, **protokolo hau URAREN EUSKAL AGENTZIAN zerbitzua ematen duen orori aplikatuko zaio, zuzendaritzako kideak barne.**

Halaber, URAREN EUSKAL AGENTZIAk bere gain hartzen du sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko daukan politika herritarrei eta erakunde hornitzaileei jakinarazteko betebeharra, eta bereziki, protokolo honen berri ematekoa, zorrotz bete behar dela adieraziz.

URAREN EUSKAL AGENTZIAk, kasu zehatzen batean, protokoloa osorik aplikatzeko gaitasunik ez badu -ustezko jazarpenaren subjektu aktiboa erakundearen zuzendaritzaren aginpidetik edo eragimenetik



kanpoko delako-, eskumena duen enpresa/eskudunera jo beharko du, bertan arazoa konpon dezaten, eta hala behar denean, arduraduna zigortu dezaten; eta ohartaraziko dio, egin beharrekoa egin ezean, amaitu egingo dela bien arteko lan-harremana.

4. ERREFERENTZIAKO ARAUDIA ETA DEFINIZIOAK

4.1. Erreferentziako araudia

Europako Parlamentuaren eta 2006ko **UZTAILAREN 5eko KONTSEILUAREN 2006/54/EE ZUZENTARAUAK**, enpleguaren eta okupazioaren arloan gizonen eta emakumeen arteko tratua eta aukera-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoak, jazarpen sexista eta sexu-jazarpenera definitzen ditu, eta ezartzen du egoera horiek bereizkeriatzat joko direla, eta ondorioz, debekatu eta zehatu egingo direla, egokiro, proportzionalki eta disuasio xedez. **SEXU-JAZARPENARI AURRE EGITEKO ERKIDEGOKO JOKABIDE KODEA, 1991KO AZAROAREN 27koa**, prebentzioaren alorrean Erkidegoko arau hura garatzen duen arau europarra da.

3/2007 LEGE ORGANIKOA, MARTXOAREN 22koa, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKOA. Honako hau dio 7. artikuluan:

- 1. Zigor Kodean ezarritakoa gorabehera, lege honen ondorioetarako, sexu-jazarpenera izango da sexu-izaerako edozein portaera –hitzezkoa edo fisikoa-, pertsona baten duintasunaren aurka egiteko helburua edo ondorioa duena, bereziki, larderiazko ingurunea, apalesgarria edo laidogarria sortzen denean.*
- 2. Sexuan oinarritutako jazarpena da pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, xede edo ondorio duena pertsonaren duintasunaren aurka egitea eta larderiazko ingurunea, apalesgarria eta laidogarria sortzea.*
- 3. Beti joko dira bereizkeriatzat sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpena.*
- 4. Sexuan oinarritutako bereizkeriatzat joko da, halaber, eskubide bat edo eskubide-igurikimen bat eskuratzeko, aldez aurretik egoera jakin bat onartu behar izatea, egoera horrek sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpena dakarrenean.*

Eta 48. artikuluan hau ezartzen du:

- 1. Enpresek sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan baldintzak sustatu beharko dituzte, eta prozedura bereziak ezarri, horiek prebenitzeko eta halakoak jasan dituztenen kasuan kasuko salaketa eta erreklamazioak bideratzeko. Xede horrekin, langileen ordezkariekin negoziatu beharko diren neurriak ezarri ahal izango dira, hala nola, jardunbide egokien kodeak egin eta zabaltzea, informazio-kanpainak gauzatzea edo prestakuntza-ekintzak gauzatzea.*
- 2. Langileen ordezkariak lagundu beharko dute lanean sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzen, horren aurrean langileak sentsibilizatuz eta enpresa-zuzendaritza informatuz eurek ezagutzen dituzten jokabideen eta jarreraren gainean, halakoek sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpena eragin dezaketenean.*

LAN ARLOKO ARAU-HAUSPEN ETA ZEHAPENEI BURUZKO LEGEAREN 8.13. bis artikuluan oso arau-hauspen larritzat jotzen da sexu-jazarpenera, enpresa zuzendaritzaren ahalmenpeko eremuan gertatzen denean, egile aktiboa edonor dela ere.

Arau berean, **8.13 bis artikuluan**, oso arau-hauspen larritzat jotzen da, halaber, sexuan oinarritutako



jazarpena, enpresa-zuzendaritzaren ahalmenpeko eremuan gertatzen denean, egile aktiboa edonor dela ere, betiere, enpresaria jakitun izanik, hori eragozteko beharrezko neurriak hartu ez balitu.

LAN IKUSKARITZAREN 69/2009 IRIZPIDE TEKNIKOAK, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZAK LANEKO JAZARPEN ETA INDARKERIAREN ALORREAN EGIN BEHARREKO JARDUEREI BURUZKOAK, prebentzioaren alorreko arau-hauspentzat jotzen du lan eremuan genero-indarkeria prebenitzeko neurriak ez hartzea eta horri buruzko ebaluaziorik ez egitea.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/2005 LEGEAK alor bera aipatzen du. Zehazki, **43. artikuluan**, laneko sexu-jazarpena eta jazarpen sexista definitzen ditu, eta jokabide horien biktimei laguntza juridiko eta psikologiko berehalakoa, doakoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuerakoa bermatzeko betebeharra ezartzen die euskal administrazio publikoei.

4.2. Definizioak

JAZARPEN SEXISTA lanean, nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzen bada. Jokabide horrek sexuarekin zerikusia duenean, **JAZARPEN SEXUALA** da.

(4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. 43. artikulua)

<p>Esate baterako, "SEXU-JAZARPEN" izan daitezke jokabide hauek:</p> <ul style="list-style-type: none">• Adierazpen iradokitzaileak eta desatseginak, tankera edo itxurari buruzko txisteak edo adierazpenak, eta nahita egindako hitzezko abusu lizunak.• Gonbit lizunak.• Lantokietan eta lanabesetan emakumeak eta gizonak modu apalgarrian irudikatzen dituzten irudien edo afixen erabilera.• Keinu eta ahozkoa ez den mintzaira lizunak.• Beharrezkoa ez den kontaktu fisikoa, ukitze arinak, norberaren espazioaren inbasioa.• Sexu-mesedeak eskatzea, lehentasunezko traturako promesa esplizituak edo inplizituak eginez edo egin gabe, edo mehatxu eginez, eskaerari erantzun ezean (sexu-xantaia, quid pro quo edo trukerakoa).• Sexu-eraso fisikoak.	<p>Beste portaera batzuen artean, "JAZARPEN SEXISTA EDO SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPEN" izan daitezke jokabide hauek:</p> <ul style="list-style-type: none">• Langileari edo bere lanari buruzko deskalifikazio publikoak, behin eta berriz egindakoak.• Itxura fisikoari, ideologiari edo sexu-aukerari buruzko adierazpen etengabeak eta isekagarriak.• Agindu isekagarriak ematea.• Muturreko eta etengabeko zainketa dakarten jarrerak.• Pertsona bat isolatzeko eta bakartzeko agindua edo presio inplizitua.• Erasoa fisikoak edo larderia bortitza.
--	--



5. BERME-PROZEDURA

Protokolo honen aplikazio-eremuan sartutako langile guztiak pertsonen duintasuna errespetatu beharko dute eta sexu-jazarpen edo jazarpen sexista diren jokabideak ekidin beharko dituzte. Langile orok sexu-jazarpen edo jazarpen sexistari buruzko kexa aurkez dezake, idatziz nahiz ahoz, ondoren arautzen den prozedurari jarraituz.

5.1. Salaketak aurkeztea

Protokolo honen aplikazio-eremuan sartutako langile orok, sexu-jazarpen edo jazarpen sexistaren biktima dela uste badu, edo jazarpen-egoera baten berri daukan **edonork aurkez dezake salaketa, idatziz edo ahoz**, organo edo pertsona eskudunen aurrean.

- **Aholkulari Konfidentziala**

Salaketa jasotzen dutenak *Aholkulari Konfidentzial* deituko dira, sexu-jazarpenari aurre egiteko 1991ko azaroaren 27ko Europako Erkidegoko Jokabide Kodean egindako iradokizunari jarraituz. Berdintasun Taldeak aukeratuak izango dira, hurrengo irizpideak kontuan izanda: bat, behintzat, emakumezkoa eta generoaren alorreko formazioa dutenak (prestakuntzarik ez badute, bitartekoak edo tresnak emango zaizkie lanaldiaren barruan prestakuntza jasotzeko).

- **Bulegoetako erreferentziazko pertsonak**

URAREN EUSKAL AGENTZIAko langileak lurralde eta bulego desberdinetan banatuta daudenez, Berdintasun Taldeko kide diren Bilbo, Donostia eta Forondako (Gasteiz) bulegoetakoak nor bere bulegoko lankideen eskura egotea erabaki da, besteak beste, prozesuari buruzko informazio gehiago emateko eta egon litezkeen zalantzak argitzeko, hala nahi izanez gero.

I. Eranskinean jasota daude *Aholkularitza Konfidentzial* taldearen egungo osaera eta bulego guztietako erreferentziazko pertsonen zerrenda.

Haien izaera bileren bidez, jakinarazpen baten bidez eta xede horretan diseinatutako komunikazio elementu batez jakinaraziko zaie URAREN EUSKAL AGENTZIAko langile guztiei.

- **Kanpoko aholkularitza**

Beharrezkotzat jotzen denetan, bai ikertutako egoeraren ezaugarriek hala eskatzen dutelako, bai egindako analisia alderatzeko, aholkularitza eskatuko zaie psikologian, soziologian, zuzenbidean, laneko osasunean edota bestelako alorretan adituak diren kanpoko pertsoneri edo elkarteei sexu-jazarpenaren, jazarpen sexistaren edo sexuaren ziozko egoeren aurrean jarduteko eta horiei aurre hartzeko. Konfidentzialtasunaren betebeharra bete beharko du delako aholkularitza taldean parte hartuko duen orok.



5.2. Prozedura informala

Jazarpen-jarduerak arintzat kalifikatu daitezkeenean, *Aholkulari Konfidentzialak* prozedura konfidentziala eta azkarra hasiko du salaketaren egiazkotasuna egiaztatzeko. Horretarako, erakundeko edozein lekutan eta noiznahi sartu ahal izango da, egoki iritzitako pertsonen adierazpenak jasotze aldera.

Aurkeztu den salaketaren egiazkotasunari buruzko zantzuak daudela uste denean, konfidentzialki harremanetan jarriko da salatuarekin, horrekin bakarrik edo salatzailearekin batera -salatzaileak nahi bezala-, haren jokabideari buruzko kexa bat dagoela jakinarazteko, eta salatutako jokabideak egiazkoak izanez gero eta berriro ere eginez gero, salatuak eduki ditzakeen diziplina-erantzukizunen berri emateko.

Salatuak egokitzat jotzen dituen azalpenak eman ahal izango ditu.

Ebazpen-prozedura informal honetan, *Aholkulari Konfidentziala* kexa helaraztera eta salatuari izan ditzakeen diziplina-erantzukizunen berri ematera mugatuko da.

Prozedura informalaren helburua arazoa bide ofizialetik kanpo ebaztea izango da; batzuetan, arazoa konpontzeko nahikoa izaten da subjektu aktiboari jakinaraztea bere jokabideaz ondorio iraingarriak eta larderiazkoak sortzen dituela.

Prozedura, gehienez ere, zazpi lanegunetan egingo da. Printzipioz, aholkularitzak salatzailearen sinesgarritasuna izango du abiapuntu, eta prozeduraren konfidentzialtasuna eta pertsonen duintasuna babestu beharko ditu; horretarako, prozeduraren hasieran kasuari zenbaki-kode bat ezarriko zaio eta kasuarekin zerikusia duten guztien anonimotasuna zaindu eta bermatu egingo da, espedientean izen orokor batez izendatuz.

Halaber, biktimaren eta salatzailearen segurtasuna eta osasuna behar beste babestuko ditu, ustezko jazarpen-egoerak berriz gertatu ez daitezen ekidinez eta horretarako behar diren kautela-neurriak proposatuz, kontuan hartuta egoera horretatik sor daitezkeen ondorio fisikoak eta psikologikoak, biktimaren laninguruabarrak aintzat hartuta, bereziki.

Salaketa aurkeztu eta zazpi laneguneko epean, amaitutzat joko da prozedura. Salbuespenez, premia larrietan baino ez, hiru egunez luza daiteke prozesua.

Beharrezkoa da salaketak funtsik duen balioestea eta prozesu informalaren xedea bete den ala ez adieraztea. Behar denean, egoki iritzitako jarduerak proposatuko dira, baita prozesu formalari ekitea ere, baldin eta proposaturiko irtenbidea alde biek onartu ezean, edota biktimak berak egokitzat jo ezean.

Aholkularitza Konfidentzialak berehalakoan jakinaraziko die prozedura informalaren emaitza Berdintasun Taldeko kideei.



5.3. Prozedura formala

5.3.1. Prozesuaren hasiera: Salaketa, aurretiazko balioespena eta kautela-neurriak hartzea.

Salatutako jarduera jazarpen larritzat edo oso larritzat jo badaiteke edo salatzailea ebazpen-prozedura informalaz lortutako konponbidearekin gustura ez badago — dela eskaintako konponbideari desegoki deritzolako, dela salatutako jokabideak berriro ere egin direlako — edo ebazpen-prozedura informalera jotzea gomendagarri iritzi ez bazion, **salaketa formala planteatu daiteke salatuak izan ditzakeen diziiplina erantzukizunak argitu daitezten**. Horretaz gain, Lan Ikuskaritzan, auzibide zibilean eta lan-auzibidean salatzeke edo auzibide penalean kereila jartzeko eskubidea ere badauka.

Printzipioz, salaketa ahozkoa edo idatzizkoa izan daiteke, eta *Aholkularitza Konfidentzian* aurkeztu beharko da. Aurretiaz prozedura informala egin bada, prozedura formalari ekiteko salaketa idatziz egin beharko da.

Ahozko salaketak direnean, *Aholkularitza Konfidentzialak* salaketaren iturria, izaera eta seriotasuna balioetsiko ditu, eta nahikoa zantzu aurkitzen badu, ofizioz jardungo du salatutako egoera ikertzeko.

Jazarpenen baten berri duen edonork sala dezake egoera, bai berak zuzenean, bai hirugarren baten bitartez.

Aholkularitza Konfidentzialak salaketa formal ororen konfidentziasun eta seriotasun gorena bermatu beharko ditu. Printzipio hori bete ezean, zehapen ohartarazpena egingo zaio.

Salaketa jaso, ikerketari ekin eta sinesgarritasuna sendetsi ondoren, *Aholkulari Konfidentzialak* idatziz eta behar bezala sinatuta jasoko du biktimaren salaketa.

Ondoren, egoera jakinaraziko dio Berdintasun Taldeari. *Aholkularitza Konfidentzialak* informazioa emango du salaketaren alderdi guztien inguruan, ordura arte egindako jardueri buruz eta sinesgarritasunaren gainean dituen usteei buruz. Beharrezkoa izanik, konfidentzialki jakinaraziko zaio Zuzendaritzari, horrek kautela-neurriak har ditzan, esate baterako — eta ahal izanez gero-, jazarpenaren subjektu aktiboa eta pasiboa elkarrengandik urrunduz, biktimaren osasun eta osotasunari kaltegarri zaion egoera berriro gerta dadin eragoztearren. Neurri horiek biktimari ez diote inoiz ere lan-baldintzen kalte edo galerarik ekarriko, ez eta horien funtsan aldaketarik ere.

5.3.2. Prozedura.

Aholkularitza Konfidentzialak egokitzat jotzen dituen ikerketa-prozedurak erabiliko ditu salaketaren egitasuna egiaztatzeke, une oro errespetatuz tartean dauden pertsonen funtsezko eskubideak eta, batez ere, alde bien intimitate eta duintasunerako eskubidea.

Salatuari ahalik eta arinen jakinarazi beharko dio haren kontrako salaketa aurkeztu dela.

Horretaz gainera, horren aurrean salatuak esatekoa duena entzuteko aukera eman beharko dio, biktima aurrean izan ala ez —biktimak erabakiko du—. Lekukotza jasotzeko, batak zein besteak ordezkaritza-organoetako kideren bat edo, egokitzat joz gero, beste lankideren bat aurrean izatea ere eska dezake.



Ahal izanez gero, egitateei buruz biktimaren azalpenen informazioa baino ez da jasoko (baldin eta, kasua ebazteko, beharrezkoa ez bada beste elkarrizketa batzuk egitea), eta konfidentzialtasuna eta azkartasuna bermatuko dira izapideetan.

5.3.3. Prozesuaren amaiera. Diziiplina-neurriak aplikatzea.

Salaketa aurkezten denetik **gehienez hamar laneguneko epean**, *Aholkularitza Konfidentzialak* ikertutako ustezko jazarpenari buruzko txosten bat egin eta onartuko du, eta bertan ateratako ondorioak eta antzemandako inguruabar astungarriak edo aringarriak adierazi, eta, hala behar izanez gero, legezkiokkeen diziiplina-neurriak proposatuko ditu. Txosten hori berehala bidaliko da erakundearen zuzendaritzara eta Berdintasun Taldeara. Salbuespen gisa, premia larrietan baino ez, hiru egunez ere luza daiteke prozesua.

Zuzendaritzak adosten den zehapena ezarri beharko du, zehapen-prozedurak ezartzen dituen epeetan.

Jazarpenak iraun duen artean, biktimak errepresalia edo kalterik jaso badu, jazarpenaren aurreko baldintza berberak itzuliko zaizkio.

Disuasio-xedez, egindako ikerketaren emaitza eta zehapen-espeditatea behar bezala jakinaraziko dira jarduera bera gertatu izan den eremuan.

Nahiz eta *Aholkulari Konfidentziala* gauza ez izan gertatu dena oinarri sendoeekin salatua izateko behar besteko frogarik biltzeko, salatzailea ezin izango da behartu salatuarekin gogoz kontra lan egitera. URAREN EUSKAL AGENTZIA, beraz, behartuta egongo da salatzailea lanpostuz aldatzera.

5.4. Prozedurek bete beharreko bermeak

- **Pertsona inplikatuaren oinarrizko eskubideak errespetatzea; intimitaterako eskubidea, bereziki.**
- **Prestakuntza.** Erakundeak Aholkularitza Konfidentzialeko kideak prestatuko ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexista edo sexuan oinarritutako jazarpenaren gainean, bai eta protokolo honen gainean ere.
- **Bitartekoak eta behar den informazioa eskuratzea.** Erakundeak behar diren bitartekoak jarriko ditu *Aholkulari konfidentzialaren* eskura, prozedurak gara ditzan, eta kasuarekin zerikusia izan dezakeen informazioa eskuratzea bermatuko dio.
- **Pertsonen osasuna eta segurtasuna babestea.** Ustezko jazarpen-egoerak osasun edo segurtasun arazorik eraginez gero, egoera eteteko helburuz, Aholkularitza Konfidentzialak esku hartuko du; hartara, kautela-neurriak proposatuko dira. Neurri horiek inola ere ez diote kalterik edo galerarik eragin beharko biktimari lan-baldintzetan, ezta aldaketa nabarmenik ere.
- **Pertsonen eta ikertutako egintzen gaineko konfidentzialtasuna.** Prozeduran esku hartzen duten pertsonak eta inplikaturak dauden aldeek (salatzailea, ustezko biktima, salatua eta lekukoak) erabateko konfidentzialtasunez eta zuhurtasunez jokatu beharko dute, eta ez dute informaziorik emango, ezta aurkezten diren salaketaren edukia zabalduko ere. Konfidentzialtasuna urratzeak kasuan kasuko diziiplina-erantzukizuna ekartzen ahalko du.



- **Prestasuna eta azkartasuna.** Prozedurak arin eta azkar garatu beharko dira; hartara, gehieneko epe bat ezarriko da prozedurak ebatzeko. Alde horretatik, ahalik eta informaziorik gehiena lortzen saiatu beharko da, eta biktimak egintzen gainera adierazpen bakar bat, behintzat, eman beharko du, ezinbestekoa ez bada elkarriketa gehiago egitea kasua ebatzeko.
- **Inpartzialtasuna.** Aurreikusita dauden prozedurak garatzerakoan, Aholkularitza Konfidentzialak egintza salatuak bakarrik izanen ditu aztergai, eta ez dira tartean sartuko persona inplikatuaren harreman pertsonalak eta ibilbidea.
- Prozedura osoan zehar, hala salatuak, nola salatzaileak **beste pertsona bat bertara dadila eskatzen ahalko du**, Aholkularitza Konfidentzialarekin izaten dituzten bileretara.
- **Informazioa.** Oro har, inplikatuak alderdi jarduketan eta hartzen diren ebazpenen berri emanen zaie. Era berean, kasuen estatistika-informazioa jaulkiko da, baina ukitutako pertsonen intimitatea gordeta.
- **Bermatu egin beharko da jazarpena salatu duten lagunen kontrako edo horren ikerketetan parte hartu, lagundu edo lekuko diren lagunen kontrako errepresaliarik ez egotea**, ez eta horrelako jokabideen aurka egiten dutenen edo hori kritikatzeko dutenen aurka ere, bai euren buruez, bai besteez ari izan. Adierazitako subjektu horien aurka (salatariak, lekukoak edo laguntzaileak) neurri kaltegarriak hartzea zehatu egingo da, jarraian arautzen den diziplina-araubidearen arabera.
- **Aurrekoa gorabehera, zehatu egingo dira nahita egindako iruzurrezko eta engainuzko salaketa, alegazio edo adierazpen oro, salatuari justifikatu gabeko kaltea eragiteko egindakoak; horretaz gain, zuzenbidearen arabera bidezkotzat jotzen diren beste ekintza batzuk ere gauzatu ahal izango dira. Ez da faltsutzat edo kalumniatzotzat joko fede onean aurkeztutako salaketa, salaketaren egiazkotasuna egiaztatzea ezinezkoa izan bada ere.**
- **Protokolo hau aplikatzen bada ere, inplikatuak eskura dauden kasuko lege ekintzak erabiltzen ahalko dituzte protokoloa bete bitartean edo ondoren.**

6. FALTAK ETA ZEHAPENAK

6.1. Faltak

OSO LARRITZAT joko dira ondorengo FALTA hauek:

- a) Sexu-xantaia, hau da, biktimak sexu-mesederen bat egitea onartzea enplegua lortzeko, enpleguaren baldintza edo enplegua izaten jarraitzeko baldintza bezala, nahiz eta baldintzaren horren mehatxu esplizitua edo inplizitua gauzatu ez.
- b) Giro-jazarpen eta jazarpen-sexista, hau da, lanean lardaskeriazko giroa, etsaitasunezkoa edo umiliagarria sortzea, eduki sexuala edo sexista duena, ekintzaren larria eta aldi berean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuta, proportzionaltasun-printzipioaren arabera oso arau-hauspen larritzat jotzeko modukoa denean. Eraso fisikoa oso larritzat joko da beti.
- c) Errepresaliak hartzea jazarpena salatu duten lagunen kontra edo horren ikerketetan parte hartu, lagundu edo lekuko diren lagunen kontra, bai eta horrelako jokabideen aurka egiten dutenen aurka ere, bai euren buruez, bai besteez ari izan.
- d) Salatutakoaren aurkako epai judizial kondenatzailea eman ondoren delitu diren egitateak.



LARRITZAT joko dira ondorengo FALTA hauek:

- a) Gonbit lizunak.
- b) Keinua eta ahozkoa ez den mintzaira lizunak.
- c) Beharrezkoa ez den kontaktu fisikoa, ukitze arinak; norberaren espazioaren inbasioa.
- d) Langileari edo bere lanari buruzko deskalifikazio publikoak egitea behin eta berriz.
- e) Itxura fisikoari, ideologiari edo sexu-aukerari buruzko adierazpen etengabeak eta isekagarriak.
- f) Agindu isekagarriak ematea.
- g) Muturreko eta etengabeko kontrola dakarten jarrerak.
- h) Pertsona bat isolatua eta bakartua izateko agindua, presio inplizitua.
- i) Larritasun maila bera duen beste edozein.

ARINTZAT joko dira ondorengo FALTA hauek:

- a) Adierazpen iradokitzailak eta desatseginak, tankera edo itxurari buruzko txisteak edo adierazpenak, eta nahita egindako hitzezko abusu lizunak.
- b) Lanleketan eta laneko tresnetan emakumea edota gizona era iraingarri batean erakusten dituzten irudi edo posterrak jartzea, beti ere falta larrizat jotzen ez bada.

Baldintza astungarri kualifikatua izango da hierarkia-nagusitasunaren abusua eta jokabide iraingarria izaten jarraitzea biktimak ebazpen-prozedurak erabili ondoren. Maltzurkeria ere astungarria da (hau da, bitartekoak, moduak edo formak erabiltzea zuzenean subjektu aktiboaren ukigabetasuna bermatzeko).

Inguruabar aringarriak izango dira:

- a) Lan-espeditetan aurretiaz inolako zehapenik jasota ez izatea.
- b) Berezko damua dela-eta, faltaren ondorioak konpondu edo arintzea, irainduari gogobetetzea edo egitatea aitortzea.

6.2. Zehapenak

Proporzionaltasun-printzipioaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenaren 85.7 artikuluan xedaturikoaren arabera, honako zigor hauek ezarriko dira:

Falta arinak:

Idatzizko ohartarazpena, gehienez ere, bi egun arteko enplegua eta soldata etetea.

Falta larriak:

Bi egunetik hilabetera arteko enplegua eta soldata etetea.



Falta oso larriak:

Hilabetetik hiru hilera arteko enplegua eta soldata etetea; gehienez ere, bi urtetik gora lanik gabe uztea; kaleratzea.

Enplegua eta soldata etetea dakarren zehapenaren arrazoiak protokoloaren berri ez izatea edota hutsegite edo gaizki-ulerturen batek-edo eragindakoa izan bada, lanorduz kanpoko prestakuntza-jardunaldien bidez osa daiteke zehapena, betiere erakundearen zuzendaritzaren iritziz neurri hori egokia bada kasuan kasuko arau-hauspenik berriro ez egiteko.

7. DIBULGAZIO POLITIKA

Ezinbestekotzat jotzen da eraginpeko langile guztiek protokolo honen berri izatea. Dibulgazio-tresnak izango dira, besteak beste, bulego guztietan bilerak antolatzea, langile guztiei zirkular bat bidaltzea, intraneten argitaratzea, bulego guztietako iragarki-tauletan komunikazio elementu bat zabaltzea, "Betaurreko Lilak" gunean hain zuzen. Dibulgazio-agirian, *Aholkulari Konfidentzialaren* izena eta harremanetarako helbidea adieraziko dira.

Ahalik eta bitartekorik gehien erabiliko da herritarrei zein erakunde hornitzaileei erakundeak alor honetan duen politika zein den azaltzeko.

8. PRESTAKUNTZA-POLITIKA

Lan-arriskuen alorrean erakundeak duen informazio- eta prestakuntza-politikan genero-indarkeriari buruzko prestakuntza egokia sartzea bermatuko da, bereziki, sexu-jazarpen eta jazarpen sexistari buruzkoa eta horrek biktimen osasunean dituen ondorioei buruzkoa, langile guztientzat.

Gainera, *emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren* 48.2 artikuluan aurreikusten denaren arabera, langileen ordezkariak lagundu egin behar dute lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzen, horren aurrean **langileak sentsibilizatuz** eta erakundeko zuzendaritzari berri emanez sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena eragin dezaketen jokabideak eta jarrerak ezagutzen dituztenean.



9. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Aholkularitza konfidentzialak aurkeztutako salaketa eta espedientearen ebazpena kontrolatuko ditu, eta URAREN EUSKAL AGENTZIAN protokolo hau onartzen denetik urtebetera protokoloaren ezarpenari buruz jarraipen-txosten bat egingo du.

Txosten hori zuzendaritzari, Enpresa Batzordeari, Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeari eta Berdintasun Taldeari aurkeztuko zaie.

10. BIKTIMENTZAKO INFORMAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoan erabilgarri dauden zerbitzu publikoei buruzko informazioa emango zaie biktima izan daitezkeenei, behar bezala babestuta senti daitezen eta ahal den neurrian aurreko egoerara itzultzen laguntzeko. Horretarako, informazioa honako honetan eska dezakete:

- Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundea: 945 01 67 00

Vitoria-Gasteiz 2016ko otsailraen 23a.

Fdo. Begoña Otalora
Zerbitzu orokorren arduraduna


Fdo. María-López de Heredia
Administrazio eta zerbitzuen zuzendaria

Fdo. Iraia San Saturnino
Komunikazio teknikaria

Fdo. Naiara Ortiz de Zarate
Administrari orokorra

Fdo. Andere Enbeita
Ur ikuskaria

Fdo. Esther Bernedo
Ebaluazio eta plangintza teknikaria



Fdo. Elena Bombín
Administrari orokorra

Fdo. Raúl Ramírez
Ur ikuskaria

Fdo. Alberto Garzón
Ur ikuskaria eta langilearen ordezkaria.



I. ERANSKINA

AHOLKULARITZA KONFIDENTZIALA TALDEAREN OSAERA

Dokumentu hau sinatzean, honako hauek ari dira Aholkularitza Konfidentziala Taldean:

- **Esther Bernedo**
Plangintza eta Ebaluazio teknikaria (Plangintza eta Lanen Zuzendaritza) eta
Berdintasun Taldeko kidea
Orio kaleko bulegoa (Gasteiz)
945 011714
ebernedo@uragentzia.eus
- **Naiara Ortíz de Zarate**
Administrari orokorra (Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza) eta Berdintasun
Taldeko kidea
Orio kaleko bulegoa (Gasteiz)
945 011 758
n-ortiz@uragentzia.eus

ERREFERENTZIAZKO PERTSONAK BULEGOETAN

Dokumentu hau sinatzean, honako hauek dira erreferentziazko lankideak bulegoetan:

Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa:


- **Alberto Garzón**
Ur-ikuskatzailea, langileen ordezkaria eta Berdintasun Taldeko kidea
94 4033838
agarzon@uragentzia.eus

Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa:

- **Andere Enbeita**
Ur-ikuskatzailea eta Berdintasun Taldeko kidea
943 024876
aenbeita@uragentzia.eus

Mediterraneoko Arroen Bulegoa:

- **Raúl Ramírez**
Ur-ikuskatzailea eta Berdintasun Taldeko kidea
945 011881
rramirez@uragentzia.eus



II. ERANSKINA

SALAKETA EREDUA

Aholkularitza Konfidentzialak salatzailearekin batera betetzeko

DATA:		KODEA:	
SALATZAILEA:			
Izen-deiturak			
NAN			
Sexua	<input type="checkbox"/> Emakumea	<input type="checkbox"/> Gizona	<input type="checkbox"/> Besterik
Ondoko gisara	<input type="checkbox"/> Ustezko biktima. <input type="checkbox"/> Ordezkaritza sindikala. <input type="checkbox"/> Ustezko biktimak lan egiten duen alorreko zuzendaritza. <input type="checkbox"/> Salatutako jarduketa ikusi duen pertsona. <input type="checkbox"/> Besteren bat:		
Telefonoa			
E-posta			
JAZARPEN MOTA:	<input type="checkbox"/> Sexu-jazarpena	<input type="checkbox"/> Jazarpen sexista edo sexuan oinarritutako jazarpena	
USTEZKO BIKTIMA (Bete, ustezko biktima salatzailea bera ez bada):			
Izen-deiturak			
NAN			
Sexua	<input type="checkbox"/> Emakumea	<input type="checkbox"/> Gizona	<input type="checkbox"/> Besterik
Telefonoa			
E-posta			
USTEZKO BIKTIMA (Edozein kasutan):			
Bulegoa			
Zuzendaritza			
Lanpostua			
SALATUA*:			
Izen-deiturak			
NAN			
Sexua	<input type="checkbox"/> Emakumea	<input type="checkbox"/> Gizona	<input type="checkbox"/> Besterik
Bulegoa			
Zuzendaritza			
Lanpostua			
Ustezko biktimarekin duen harremana	<input type="checkbox"/> Goragoko hierarkia-maila. <input type="checkbox"/> Hierarkia-maila berbera. <input type="checkbox"/> Beheragoko hierarkia-maila. <input type="checkbox"/> Herritarra. <input type="checkbox"/> Hornitzailea. <input type="checkbox"/> Besterik:		
Salatuak ustezko biktimarekin batera egiten al du lan?	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez	
Jakinarazi al dio salatzaileak salatu duen egoera bere nagusi hierarkikoari?	<input type="checkbox"/> Bai. <input type="checkbox"/> Ez. <input type="checkbox"/> Salatua salatzailearen nagusi hierarkikoa da.		



EGINTZAK DESKRIBATZEA (datak, tokiak, orduak...):	
AURREKOA FROGATZEKO, HONAKO HAUEK DAUDE:	
<input type="checkbox"/> Berariazko frogarik ez. <input type="checkbox"/> Froga dokumentalak <input type="checkbox"/> Salatutako egoeraren lekukoak. <input type="checkbox"/> Besterik:	
Hala bada, adierazi lekukoak nor diren:	
BA AL DA KALTETUTAKO BESTE INOR?	
<input type="checkbox"/> Ez. <input type="checkbox"/> Bai. Adierazi nor (izena eta postuak):	
DOKUMENTAZIO ATXIKIA	
<input type="checkbox"/> Ez. <input type="checkbox"/> Bai. <input type="checkbox"/> Esan zer agiri diren:	
SINADURAK	
Salatzailea	Aholkularitza Konfidentziala

* Salatutakoak hainbat pertsona badira, haietako bakoitzari begira osatuko da txosten hau.



III. ERANSKINA:

KONFIDENTZIALTASUNA GORDEZKEKO ETA INFORMAZIOA EZ
ZABALTZEKO AKORDIOA

Izen-deiturak _____ D.N.I. _____

Izen-deiturak _____ D.N.I. _____

Sexu-jazarpenari eta jazarpen sexista edo sexuan oinarritutako jazarpenari prebetzio eta aurre egiteko protokoloaren Aholkularitza Konfidentzialaren kide garen aldetik

KONPROMISOA HARTU DUGU

erabateko konfidentziasunez eta zuhurtasunez jokatzeko, eta aurkeztu den salaketaren edota kodea duen ikerketa prozesuaren edukiari buruz informaziorik ez emateko eta ez zabaltzeko.

Horrenbestez, agiri hau sinatzen dugu.

Vitoria- Gasteizen, 20.....ko aren (e)an.

Izenak eta sinadurak:



IV. ERANSKINA:

SALATUARI SALAKETA JAKINARAZTEA

Salatuaren izen-deiturak: _____

Honen bidez zure aurkako barne-salaketa bat aurkeztu dela jakinarazi nahi dizugu, honako jazarpen honengatik (jazarpen-mota): _____.

2016ko otsailaren 23an URAREN EUSKAL AGENTZIAk onetsi zuen sexu-jazarpenari eta jazarpen sexista edo sexuan oinarritutako jazarpenari prebentzio eta aurre egiteko protokoloarekin bat datorren berme-prozedura abiarazi egin da eta, *Aholkulari Konfidentziala* naizen aldetik, horren berri emateko jartzen naiz zurekin harremanetan.

Jasotako salaketaren eta abiarazi dugun kodeko prozeduraren kopia helarazten dizuegu, bai eta hitzordua ere zurekin batera bilera bat egiteko:

Bilera lekua:

eguna: 20.....koaren (e)a,
ordua:.....

Egoki baderitzozu, bilerara nahiz prozeduraren gainerako urratsetara aholkatuko zaituen norbaitek lagunduta joan zaitezke.

Azkenik, bilerara ez agertzeak gertakarion ikerketa oztopa lezakeen ekintzatzat jo daitekeela ere jakinarazi nahi dizugu.

Vitoria-Gasteizen, 20koaren (e)an

Sinadura

(izena eta postua):

JASO DUT

Data:

Sinadura:

